




Euskararen **9** sentsibilizaziorako pilula:

euskara hobetzeko aholkuak, euskarari
buruzko berriak, euskal kultura eta askoz
gehiago!



Korrikako data nola eman




Datozen egunetan korrika pasako da Euskal Herriko txoko guztietan barrena. Horren aitzakian, data zuzen emateko gomendioak hemen:

1. Non eta noiz izango den adieraziz: **Baionan, 2024ko martxoaren 24an**
2. Zenbaki bidez: **2024/03/24**
3. Aposizioan (koma artean bakarrik): Korrikaren azken egunean, **martxoaren 24an**, bilduko da jende mordo.

OHARRA: bi modutara eman daiteke aposizioan (koma artean) asteko zein egun den:

- Martxoaren 24an, igandean, amaituko da KORRIKA
- Martxoaren 24an, igandearekin, amaituko da KORRIKA





2 Historia pixka bat: lehenengo KORRIKA

- **Urtea:** 1980
- **Ibilbidea:** Oñatitik Bilbora
- **Leloa:** *Zuk ere esan bai euskarari*
- **Abestia:** Xabier Amurizak idatzi zuen.
- **Omendua:** Xabier Peña Albizu. Idazlea frankismo garaiko etxe-eskolaren mugimenduaren ekintzailea.
- **Parte-hartzaile ezagunak:** Lekukoa hau eramán zutenen artean izen garrantzitsu asko izan ziren: Jose Migel Barandiaran, Telesforo Monzón, Francisco Letamendia eta Jon Castañares (Bilboko alkatea). Bilboko azken kilometroa antolatzaileek egin zuten.
- **Bitxikeria:** Lekuko barruan eramandako mezua Rikardo Arregik 1966an Euskaltzaindiari idatziriko eskutitza zen. Bertan Alfabetatze saila sor zezan proposatzen zion, jendeak euskaraz irakurri eta idazten ikastearen garrantziaz hausnartzen zuen. **Ibilbidean zehar ordea mezua galdu egin** zen eta Bilbon bertan antolatzaileak horretaz konturatu zirenean fotokopiaren bila hasi ziren baina astirik ez zegoen eta Julen Kaltzadak mezua inprobisatu zuen.





Azken euskarazko filmak eta plataformak



- Netflix
- Telesaila



- Netflix
- Telesaila



- Netflix
- Filma



- Netflix
- Filma



- Prime Video
- Telesaila



- Prime Video
- Filma



- Primeran
- Filma



4

Umorea

De Rerum Natura

@zaldieroa



5

Aroa Arrizubietak jantzi du 2024 Arabako Bertsolari Txapelketako txapela



Aroa Arrizubieta da aurtengo txapelduna, Manex Agirrekin buruz burukoa kantatu ondoren. Aroari Xabi Ricok jantzi dio txapela. 700 lagun elkartu dira Gasteizko Printzipal Antzokian.

Xabi Rico Iturriotzek jantzi dio txapela txapeldunari. 1982an, beste batzuekin batera Gasteizko Bertso Eskola sortu zuen. bertso eskolako irakasle, bertsolari, eta beste hainbat lanetan ere aritu izan da. Arabako Bertsozale Elkarteak orain 40 urte txapelketako plazari hasiera eman zion Xabiri aitortza egin nahi dio eta eskerrak eman egindako ibilbide eta lanagatik

[Bertsoa.eus](https://bertsoa.eus)



Mila esker!

Hurrengo Pilulara arte

Proposamenak, iradokizunak, zalantzak...



i.lizeaga@elhuyar.eus